



Plazaberri

1

ISSN: 1889-8084

www.euskaltzaindia.net

L.G.: BI-2701-09

2009KO URRIA

Euskaltzaindiaren aldizkaria

Euskaltzaindia, laurogeita hamar urte: ekin eta jarrai

Andres Urrutia

euskaltzainburua

Leloak lelo, horixe da Euskaltzaindiak duela laurogeita hamar urte bere buruari jarri zion ikurra: ekin eta jarrai.

Laurogeita hamar urte betetzen ditu Euskaltzaindiak aurten. Oñatiko biltzarrek proposatu zuen beronen sorrera, eta, gauzatu ere, Eusko Ikaskuntzaren bidez gauzatu zen haren izatea, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako aldundiak bultzatzaile nagusiak izan zirela.

Hasierako urteak errazak izan zirenik ezin esan. Akademia sortu berriak aurre egin behar izan zien, sorreratik bertatik, euskarak zituen bi erronkari: lehena, batasunari, eta, bigarrena, euskara bera jagoteari.

Bitasunean mamitu zuen berea Euskaltzaindiak, alegia, IKER eta JAGON sailetan. Hala dihardu lanean egun ere, bi sail horiek bere egiturari txertaturik dituela.

Historiak, alabaina, sarri-sarri ekartzen ditu aldi ilunak eta argitsuak. Zer esanik ez, Euskaltzaindiarentzat ere bai. Hasierako lehen garaia bideratuta, gerra arte iraun zuen Euskaltzaindiak, Resurrección María de Azkue euskaltzainburuaren agindupean.

Gerora ere, gerraren kontuak gorabehera, lortu zuen Euskaltzaindiak irautea, eta urte latz eta hitsetan gorde zituen, Bilboko egoitzatik bertatik, Euskal Herri osorako itzala, ospe eta estimua, euskarak, alde baino, kontra zituenean iritziak eta ageriko jarrerak. Aldiak aldi, demokraziaren garaia ekarri zuen Euskaltzaindiarentzat sustatze-aldi esanguratsua. *Bai Euskarari* kanpaina lehen aldarria izan zen. Gero etorriko ziren, bide beretik, hainbat ekitaldi eta ahalegin, euskarari aro berria ireki ziotenak.

Garrantzitsuena, ezberrik gabe, mila bederatziehun eta hirurogeita hamar urtean etorri zen, urte horretan aitortua izan zelako, Espainiako Gobernuaren Dekretu baten bidez, Euskaltzaindiaren izaera ofiziala. Aurrerantzean, izaera ofizial horrek ahalbidetu zuen, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoan Euskaltzaindia erakunde aholkumeaile ofiziala izatea (Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6.4 artikulua), eta, orobat, Nafarroako Euskararen Legean (3.3 artikuluan).

Euskaltzaindiak horien bidez berebiziko bultzada izan zuela ezin ukatu. Dena den, Euskaltzaindiak abiatu zituen ordurako bere egitasmo nagusiak: euskara batua, *Orotariko Euskal Hiztegia* (Koldo Mitxelena zuzendaritzapean), *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* (EHHA) eta bestelako corpusak ere (EEBS...).

Ekin eta jarrai, hala jarraitzen du Euskaltzaindiak euskararen mesederako gaur egun ere. euskaldun eta euskaltzale guztioi ate joka, euskararekin dugun erantzukizunaren galdetzaile eta eskale, eta, aldi berean, esker-emaile, laurogeita hamar urte hauetan euskaltzaleengandik jaso duen estimua eta begirunea aintzat hartzeko modukoa delako.

EUSKALTZAINDIA 90 URTE: EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN ZERBITZURA

EUSKALTZAINDIA 90 AÑOS: UNA INSTITUCIÓN AL SERVICIO DEL EUSKERA Y LA CULTURA VASCA

EUSKALTZAINDIA 90 ANS: AU SERVICE DE LA LANGUE ET DE LA CULTURE BASQUE

EUSKALTZAINDIA 90 YEARS: AN INSTITUTION FOR THE SUPPORT OF THE BASQUE LANGUAGE AND CULTURE



*Euskaltzaindiak lehen bilera Gipuzkoako Foru Jauregian egin zuen, orain dela 90. urte
Karmelo Etxegarai, Luis Eleizalde, (?), R.M. Azkue, Julio Urkixo, Pierre Lhande, Txomin Agirre
Artxiboko argazkia*

EUSKALTZAINDIAREN EGITURA

ZUZENDARITZA

ANDRES URRUTIA	<i>euskaltzainburua</i>
BEÑAT OIHARTZABAL	<i>buruordea</i>
XABIER KINTANA	<i>idazkaria</i>
JOSE LUIS LIZUNDIA	<i>diruzaina</i>
ANDONI SAGARNA	<i>Iker sailburua</i>
ANDRES IÑIGO	<i>Jagon sailburua</i>

ORDEZKARIAK

Gipuzkoa: Andoni Sagarna
Araba: Manu Ruiz Urrestarazu
Nafarroa: Andres Iñigo
Iparraldea: Beñat Oihartzabal

EUSKALTZAIN OHOREZKOAK 22

EUSKALTZAIN URGAZLEAK 152

EUSKALTZAIN OSOAK, IZENDAPENAREN ARABERA

Haritschelhar, Jean	1962-07-27	Lizundia, Jose Luis	2003-06-27
Larre, Emile	1974-05-24	Arejita, Adolfo	2004-06-25
Davant, Jean-Louis	1975-02-28	Toledo, Ana	2005-10-21
Salaburu, Pello	1984-03-31	Salaberri, Patxi	2005-12-16
Charritton, Piarres	1985-07-19	Atxaga, Bernardo	2006-03-31
Zabaleta, Patxi	1987-03-28	Zalbide, Mikel	2006-04-27
Sarasola, Ibon	1988-01-29	Sagarna, Andoni	2006-12-22
Peillen, Txomin	1988-03-27	Arkotxa, Aurelia	2007-03-30
Arana, Jose Antonio	1988-10-28	Aleman, Sagrario	2007-06-01
Oihartzabal, Beñat	1990-09-28	Lakarra, Joseba	2007-06-01
Azkarate, Miren	1992-04-24	Torrealdai, Joan Mari	2007-11-30
Kintana, Xabier	1993-10-29	Oñederra, Lourdes	2007-11-30
Goenaga, Patxi	1995-01-27	Uribarren, Patxi	2008-09-26
Urrutia, Andres	1997-03-21	Videgain, Xarles	2009-03-26
Iñigo, Andres	1999-02-26		



LAUROGEITA HAMAR URTE: EKITALDIAK




2008ko urriaren 6tik 10era, Iruñeko Baluarte Batzar Jauregi eta Auditoriumean, Euskaltzaindiak bere XVI. Nazioarteko Biltzarra egin zuen. Biltzarraren izenburua "Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina" izan zen eta Pirinioetako mendikate zabalaren bi aldeetako hizkuntzak eta kulturak ikertu ziren bertan. Biltzarra Euskaltzaindiaren 90. urteurrenaren lehen ospakizuna izan zen.



2009ko apirilaren 24an, Euskaltzaindiaren 90. urteurreneko ospakizun ekitaldia egin zen Gasteizen, Arabako Foru Aldundiaren jauregian. Besteak beste, ekitaldi horretan Patxi Uribarren euskaltzainak eta Manu Ruiz Urrestarazu Arabako ordezkariak hitzaldi bana eman zuten, eta Jose Luis Lizundiak eta Elena Martinez de Madinak Gasteizko Toponimia I (Hiria) eta II (Malizaeza) liburukiak aurkeztu zituzten.



Ekainaren 26an, Lapurdiko Hazparneko herriak hartu zuen Euskaltzaindia, bere urteurrena ospatzeko. Elgar Kultura Etxean egindako ekitaldian Piarres Charritton eta Emile Larre euskaltzainek eman zituzten hitzaldiak, eta ondoren Hazparneko euskarari buruz ere hitz egin zen.




Uztailaren 17an, Bilbon, Akademiaren egoitzan, Real Academia Española, Real Academia Galega eta Institut d'Estudis Catalans-en Secció Filològica erakundeetako ordezkariak hartu zituen Euskaltzaindiak, eta eurekin batera ekitaldi akademiko bat burutu. Ekitaldiaren amaieran, adierazpen bat irakurri zuen Andres Urrutia euskaltzainburuak, lau Akademiaren izenean.

EUSKALTZAINDIAREN ARGITALPENAK (1919-2009)



Euskera aldizkaria
1920 -



R. M. Azkue
Morfología Vasca
1925



Pedro Axular
Gero
1954. urteko edizioa



Euskal Aditz Batua
1979



R. M. Azkue
Dic. Vasco-Español-Francés
1984. urteko edizioa



Euskararen lekukoak bilduma
1979 -



IKER bilduma
1981 -



Jagon bilduma
1983 -



Onomasticom Vasconiae bilduma
1986 -



Orotariko Euskal Hiztegia
1987 - 2005



EGLU bilduma
Euskal Gramatika: lehen urratsak
1991 -




R. M. Azkue *Literatura sariak*
(Haur eta gazteak)
1991 -



Pedro de Yrizar
Morfología del verbo auxiliar vasco
1991 - 2008



Bernard Etxepare
Linguae Vasconum Primitiae
1995. urteko edizioa
(6 hizkuntzatan)



Euskaltzaindiaren Arauak
1995 -



Euskal deituen izendegia
1998



Euskal Izendegia
2001. urteko edizioa



Mendaurren bilduma
2005 -



Euskaltzainak bilduma
2007 -



Hiztegi Batua
2008. urteko edizioa